

Zergatik harpidetu zure haurra IRRIA aldizkarira oraindik irakurtzen ez badaki?

Guraso batzuek askotan esan izan digute beren haurrak oraindik txikiak direla IRRIA aldizkaria etxean jasotzeko “irakurtzen ez dakitelako”, baina aldizkariko istorioak haurrei erakusteko eta irakurtzeko aukera izan dutenek oso ondo dakite nolako poza hartzen duten hileroko zenbaki berria etxera iristen denean!

IRRIA-k haurrarekiko komunikazioa indartzen lagunduko dizu.

Haur txikiei “irakurtzen ematen” diegunean, komunikazio afektiboa sortzen da elkarren artean. Gertakizun erabakigarria da bien arteko harremanean. Zure haurra berehala konturatuko da aldizkariak zurekin une goxo bat igartzeko aukera eskaintzen diola. Eta oso gustura sentituko da zure magalean irakurtzen diozun bitartean.

IRRIA-k zure haurrari hitz egiten dio

Lehenengo urteetan komunikazioa zentzumenen bidez ematen da (hitza, ukimena, begirada, keinua ...). Ondoren, irakurketa eta idazketaren ikasketarekin, beste bide bat zabaltzen da komunikazioan. Baina, heldu baten laguntza eta presentzia ezinbestekoak dira komunikazio hori hasieratik burutzeko. IRRIA aldizkarian, berak bizi dituen emozio eta sentipen asko aurkituko ditu eta une horiek ez ditu inoiz ahaztuko!

IRRIA-k hitz eginaraziko dio

Helduok haurrei irakurketa eskaintzen diegun neurrian, euren adimenean aldaketa ikusgarriak eragingo ditugu, hizkuntza eta emozioak garatzeko eta baita haiekin lotura afektibo sendoa finkatzeko bidean ere. Zure haurrak gure pertsonaiak ezagutu eta beraien izenak izendatzen hasiko da. Porrotxi ipuinean gertatu zaiona bere hitzez kontatu nahiko dizu. Istorio bat bukatzean agian txaloka hasiko da eta berriro kontatzeko eskatuko dizu. Gustatu zaion seinale! IRRIA aldizkaria hitz soltetatik esaldi konplexuetara egingo duen ibilbidearen bidelagun bilakatuko da!

IRRIA-k mundua zabalduko dio.

Haurrak zure hitzak entzun, aldizkariko irudiak ikusi eta bertan agertzen diren pertsonaiak, objektuak, hizkiak eta egoerak ezagutzen ikasi eta mundura zabaltzen lagunduko dio.

IRRIA-k autoestimua lantzen lagunduko dio.

Haur txikia pertsonaiak edota irudiak ezagutu eta ahoskatzen saiatuko da. Zu harro agertuko zara eta bien arteko elkar trukaketa honek izugarrizko konfiantza emango dio eta autoestimua indartuko dio.

Ez galdu aukera! Harpidetu zure haurra IRRIA aldizkarira!